



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 7a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zein den “ADHI elkartearako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Tuterako UNEDeko Kalitatearen Katedra” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eskola-patio estaliak izatea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmenak udalekin, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan lehentasunezko jarduketak egiteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza ADACENi – Orkoien eraikin berria egiteko proiektua egitea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Gazteen elkarten programetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza landa eremuko familia eta emakumeen elkartari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Zaraitzu Ibarrean eta Iratiko Oihanean larrialdietarako antena bat jartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Kamira tailer-eskola” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Enplegu Zentro Bereziaren proiekturako, hezkuntza bereziarentzat” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, jakiteko Lorcako Udalari emandako diru-laguntza lehentasunezkoa kontsideratzen ote den, Txema Mauleón Etxeberria jaunak egin (13. or.).
- Galdera, jakiteko Pirinioetako Autobia Kontabilitate Nazionaleko doikuntzetan kontabilizatu den ala ez, Juan Carlos Longas García jaunak egin (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zein den “ADHI elkartearendako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “ADHI elkartearendako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko kontusailarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (8-11/PES-70). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna, Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzuko zuzendariak eginiko txostenarekin bat datorrena:

“2011ko apirilaren 1ean, Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak, alde batetik, eta ADHI Elkarteak lehendakariak, bestetik, hitzarmen bat sinatu zuten.

Hitzarmen horren hirugarren oinarrian hau esaten da: “Hezkuntza Departamentuak 25.000 euro jarriko ditu Lehen Oinarrian aipatu jarduerak finantzatzeko, ondoko prozedurari jarraikiz:

– Lehen ordainketa, 12.500 eurokoa, hitzarmena sinatzerakoan egingen da.

– Bigarren ordainketa, 12.500 eurokoa, azaroan egingen da, Hezkuntza Departamentuan aurkezten denean gutxienez hitzarmen honen eranskinean aipatzen diren datuak jasotzen dituen oroitidazki ekonomikoa eta justifikaziozkoa.

Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren martxoaren 23ko 108/2011 Ebazpenaren bidez, dirulaguntza eman zitzaion elkarte horri eta aipatu hitzarmenaren testua onetsi zen.

Hitzarmenean esaten den bezala, 12.500 euroko transferentzia apirilean egin zen, “Dirulaguntza ADHI elkarteari” izeneko 423001-42200-4819 322400 kontusailaren kargura.

Hitzarmenean ezarritakoari jarraikiz, azaroan aurkezten denean Hezkuntza Departamentuan oroitidazki ekonomikoa eta justifikaziozkoa, eskatzen diren datuekin, falta den zenbatekoa ordainduko da.”

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, jakiteko zein den “Tuterako UNEDeko Kalitatearen Katedra” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Tuterako UNEDeko Kalitatearen Katedra” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Tuterako UNEDeko Kalitatearen Katedra” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-11/PES-00071). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

“1.- Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren martxoaren 4ko 74/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen UNEDeko Tuterako ikastetxe elkartuaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmena, “Tuterako Hiria” kalitatearen katedra finantzatzeko.

Ebazpen horren bidez baimena eman zen hitzarmena finantzatzeko eta UNEDen Tuterako

ikastetxe elkartuaren eskura jarri ziren 75.010 euro, ondoko kontusailaren kargura:

“Tuterako UNEDeko Kalitatearen Katedra” izeneko 431000 43100 4812 322305 kontusaila.

2.- 2011ko martxoaren 11n sinatu zen 74/2011 Ebazpenaren bidez onetsitako hitzarmena.

3.- Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 22ko 114/2011 Foru Aginduaren bidez xedatu zen UNEDen Tuterako ikastetxe asoziatuari 37.505 euro ordaintzea, “Tuterako Hiria” kalitatearen katedra finantzatzeko aurrerakin gisa, lankidetz hitzarmenaren zortzigarren klausulan ezarritakoari jarraikiz.

4.- Bigarren ordainketa, 37.505 eurokoa, UNEDen Tuterako ikastetxe elkartuak eginiko gastuen ziurtagiriak aurkezten dituen baimenduko da, lankidetz hitzarmenaren zortzigarren klausulan ezarritakoari jarraikiz. Ikastetxeak berak eskatu du Kalitatearen Katedraren jarduera nagusia den Kalitate Masterraren hasiera atzeratzea; hori dela eta, bigarren ordainketa hori 2012ra atzeratuko da, hitzarmena ikastetxeak eskatutako moduan aldatu ondoren.”

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, jakiteko zein den “Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe- etan eskola-patio estaliak izatea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eskola-patio estaliak izatea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe

Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Iruñeko ikastetxeetan eskola-patio estaliak izateari buruz (8-11/PES-72). Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak eginiko txostenarekin bat datorrena:

Eranskinean ageri da “Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eskola-patio estaliak izatea” izeneko 410001-41810-7609-325107 kontusailaren egoerari buruzko informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Hezkuntza kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

KONTUSAILEN EGOERA-Iraila

| | Hasierako kreditua | Erreserba | E % | Gastu baimena | GB % | Ordainketa | O % | Oharrak |
|---|--------------------|------------|---------|---------------|---------|------------|---------|--|
| "Iruñeko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eskola-patio estaliak izatea" izeneko 410001-41810-7609-325107 kontusaila | 400.000,00 | 271.878,40 | % 67,97 | 224.101,70 | % 56,03 | 46.989,62 | % 11,75 | Buztintxuriko Ikastetxe Publikoaren kontratazio-espeditari hasiera emateko hirigintza planaren aldatzea falta da * |
| Doña Mayor Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa | | 226.267,00 | | 213.174,90 | % 94,21 | 36.062,82 | % 15,94 | % 100eko betetzearen aurreikuspena |
| Buztintxuriko HLHIP | | 45.611,40 | | 10.926,80 | % 23,96 | 10.926,80 | % 23,96 | Obrak opor garaian egiteko aurreikuspena, eskolako jardueran eraginik ez izateko. Proiektua eginda. Betetzearen aurreikuspena: 2011n % 23,96 eta 2012an % 76,04 |

* Aurreikusitako epeak:

- Hasierako onespina (abuztuaren 30ean)
- NAO argitaratzea (irailaren 15ean)
- Alegazioak (urriaren 10a arte)
- Behin betiko onspina (ziurrenik urriaren 19ko Osoko Bilkuran edo azaroko lehenengoan)

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmenak udalekin, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan lehentasunezko jarduketak egiteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Hitzarmenak udalekin, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan lehentasunezko jarduketak egiteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe

Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Hitzarmenak udalekin, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan lehentasunezko jarduketak egiteko” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (8-11/PES-00084). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Eranskinean ageri da “Hitzarmenak udalekin, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan lehentasunezko jarduketak egiteko” izeneko 410001-41810-7609-325103 kontusailaren egoerari buruzko informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Hezkuntza kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

KONTUSAILEN EGOERA-Iraila

| | Hasierako kreditua | Erreserba | E % | Gastu baimena | GB % | Ordainketa | O % | Oharrak |
|--|--------------------|------------|----------|---------------|----------|------------|--------|---|
| "Hitzarmenak udalekin, Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeetan lehentasunezko jarduketak egiteko" izeneko 410001 41810 7609 325103 (**) kontusaila | 215.194,00 | 215.194,00 | % 100,00 | 215.194,00 | % 100,00 | 0,00 | % 0,00 | |
| Cadreita | | 115.194,00 | | 115.194,00 | % 100,00 | | % 0,00 | Justifikatu gabeko gastua - Betetzearen aurreikuspena % 100 |
| Valtierra | | 100.000,00 | | 100.000,00 | % 100,00 | | % 0,00 | Lanen betetzea egiaztatu gabe - Betetzearen aurreikuspena % 100 |

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza ADACENi – Orkoienen eraikin berria egiteko proiektua egitea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Dirulaguntza ADACENi – Orkoienen eraikin berria egiteko proiektua egitea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Dirulaguntza ADACENi – Orkoienen eraikin berria egiteko proiektua egitea” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (PES-143/11). Hona Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Galderan aipatzen den kontusailaren egoera honakoa da:

| Hasierako kreditua | Bateratua | Erabilgarria | Erreserba | Baimendua | Gastu baimena |
|--------------------|-----------|--------------|-----------|-----------|---------------|
| 30.000€ | 30.000€ | 30.000€ | 0€ | 0€ | 0€ |

Kontusail hori ez betetzeko arrazoi nagusia da kontusail hori bideratuta zegoela eraikin berri bat diseinatzeko proiektu batera, hala erabakiz gero, eta, agerikoa denez, laguntza-baliabide berri bat ezartzera. Hala ere, ezinezkoa da horri guztiari heltzea –bai inbertsioa bai ondorengo funtzionamendua– egun bizi dugun egoera ekonomikoan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 22an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zein den “Gazteen elkarteen programetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Gazteen elkarteen programetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Gazteen elkarteen programetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (PES-149/11). Hona Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

“Gazteen elkarteen programetarako dirulaguntzak” izeneko 960002 96100 4819 232100 kontusailak 790.000 euro ditu 2011ko ekitaldirako. Hori-etatik, 290.000 euro bi zuzenketa onestearen ondorio dira: bata, 150.000 eurokoa, Socialistas de Navarra parlamentu-taldearena, eta bestea, 140.000 eurokoa, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearena.

Kontusail horren kargura onetsi zen, lehenbizi, gazteen entitateen eroldan izen emandako gazte elkarteentzako dirulaguntzen deialdi bat, 2011rako, Nafarroako gazteen artean bizitza ohitura osasuntsuak sustatzeko proiektuak garatzea xede zuena, 140.000 euroekin. Deialdiaren oinarriak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren martxoaren 14ko 90/2011 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren.

Halaber, Zerbitzuen Sarearen langileak kontratatze eta ekipamendua eskuratzeko laguntzen deialdia, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren otsailaren 8ko 1E/2011 Foru

Aginduaren bidez onetsitakoa, 55.000 euroekin finantzatu zen, aipatu kontusailaren kargura.

Azkenik, kontusail horretan zeuden gainerako 595.000 euroak gazteen entitateen eroldan inskribaturik dauden gazte elkarteei diru-laguntzak emateko 2011ko deialdia finantzatzeko erabili dira. Deialdi hori onetsi zen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren otsailaren 3ko 34/2011 Foru Aginduaren bidez, eta 2011ko martxoaren 14ko 35. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ekainaren 30ean, deialdi horretako bi atal ebatzita zeuden:

a) Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 20ko 100/2011 Ebazpenaren bidez, 21.205,88 euro eman ziren langileak kontratatzeke.

b) Maiatzaren 20ko 99/11 Ebazpenaren bidez, 54.000 euro eman ziren gazteen elkarteen jarduerara eta proiektuetarako.

Halaber, uztailaren 28an, 186/2011 Ebazpenaren bidez, 10.250,19 euro eman zaizkie Nafarroako gazteen zenbait elkareri Nafarroako Aterpetxeen Sareko gazteentzako aterpetxeak erabiltzeagatik.

Gainerako 509.543,95 euroak deialdiaren gainerako ataletarako gorde dira: jarduerak, funtzionamendu gastuak, eta elkartearen egoitza mantentzeko gastuak.

Dirulaguntza horiek eskatzeko epea irailaren 19an amaitu zen, 14:30ean. Normalean deialdia % 100ean bete izan da, eskatutakoaren bolumena deialdiaren diru-hornidura baino askoz ere handiagoa izan delako beti; hori dela eta, dirua hainbatu egiten da.

Azaldutakoa kontuan hartuta, esan daiteke kontusailaren betetze maila % 100ekoa izanen dela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 22an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza landa eremuko familia eta emakumeen elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Dirulaguntza landa eremuko familia eta emakumeen elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Dirulaguntza Landa Eremuko Familia eta Emakumeen Elkarteari” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz (PES-150/11). Hona Nafarroako Gobernuako Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiaren 443/2011 Ebazpenaren bidez baimendu zen landa eremuko familia eta emakumei zuzenduriko dirulaguntza bati buruzko gastua. Ebazpen beraren bidez, gastu hori Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eskuragarri jarri zen, eta erakunde horri agindu zitzaion zenbatekoa ordain zezan. Halaber, espedientea Nafarroako Berdintasunerako Institutura igorri zen.

Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 2ko 208/2011 Ebazpenaren bidez 20.000 euroko

dirulaguntza eman zitzaion Nafarroako Landa Eremuko Familia eta Emakumeen Elkarteari (AFFAMER-Nafarroa), “Nafarroako landa eremuko emakumeen parte-hartze asoziatiboa: emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzea” izeneko proiektua garatzeko, eta, halaber, onetsi zen oinarri arau-emaileak jasotzen dituen lankidetz hitzarmen bat sinatzea.

Aipatu hitzarmena 2011ko abuztuaren 5ean sinatu zen. Hitzarmen horren 5. klausulan, “Gastuaren ordainketa eta justifikazioa” izenekoan, ezarri zen dirulaguntza zatika ordainduko zela, egini-ko jardueri buruzko ziurtagiriak aurkeztutakoan, edota proiektuaren amaieran, jardueren oroitidazkia eta gastuen ziurtagiriak egiaztatu ondoren.

2011ko abuztuaren 30ean, Nafarroako Landa Eremuko Familia eta Emakumeen Elkarteak aurkeztu zituen Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuko Erregistroan ordura arte egini-ko gastuei buruzko ziurtagiri partzialak. Gaur egun, Proiektuen eta Programen Zerbitzua aipatu dokumentazioa aztertzen ari da, bidezkoa bada, dirulaguntzaren zati proportzionala ordaintze aldera, bidezkoa bada.

Horrenbestez, 2011ko ekainaren 30ean, 20.000 euroko zenbatekoa zegoen baimenduta, eta kopuru hori ordainduko da Nafarroako Landa Eremuko Familia eta Emakumeen Elkarteak egini-ko jardueren ziurtagiriak aurkeztu ahala. Aurreikuspenen arabera, kontusaileko zenbateko osoa beteko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 22an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zein den “Zaraitzu Ibarrean eta Iratiko Oihanean larrialdietarako antena bat jartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Zaraitzu Ibarrean eta Iratiko Oihanean larrialdietarako antena bat jartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Zaraitzu Ibarreko eta Iratiko Oihaneko larrialdietarako antena bat jartzea” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko bete-tzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

– Zein izan da “Zaraitzu Ibarreko eta Iratiko Oihaneko larrialdietarako antena bat jartzea” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko bete-tzearen gradu, maila eta zenbatekoa? Betetze-maila partziala izan bada edo haren zenbateko osoa bete ez bada, beteko al da ekitaldi amaierara bitartean?

Nafarroako Gobernuak ez dauka aipatu eskualdean ez larrialdietako sareari estaldura emateko beharrezkoa den ekipamendua gordetzeko telekomunikazioen zentrorik, ez larrialdietako sarearen estazioa sarearen gainerakoarekin eta SOS Nafarroarekin lotu ahal izateko komunikazioen garraio-sarerik. Horrenbestez, estaldura ezarri baino

lehen, telekomunikazio zentro bat eraiki beharko litzateke, eta hura Nafarroako larrialdi sarearekin lotu. Hala, Zaraitzu Ibarrean eta Iratiko Oihanean larrialdietako estaldura jartzeak ondoko kostua izanen luke:

| | |
|--|---------------------|
| 1.- Komunikazio zentro bat eraikitzea: | 100.000€ |
| 2.- Linea elektrikoa jartzea telekomunikazio zentro horretaraino: | 300.000€ |
| 3.- Komunikazioen garraio-sarea zentro horretaraino hedatzea: | 50.000€ |
| 4.- Larrialdi sareko ekipamendua jartzea zentro horretan: | 70.000€ |
| KOSTUA, GUZTIRA | 520.000 euro |

Horrenbestez, aurrekontuko 100.000 euroekin ezinezkoa da larrialdietarako estaldura ezartzea Zaraitzu Ibarrean eta Iratiko Oihanean, eta, horregatik, kontusaila ez da bere osotasunean bete, eta ez da aurreikusten ekitaldi amaierara bitartean betetzea.

Eskualde horretako komunikazio falta arintze aldera, bi sakelako telefono, satelite bidezkoak, eman zaizkio ibarreko batzarrari, halako moduz non ibarreko edozein tokitatik harremanetan jarri ahalko diren SOS Nafarroarekin. Telefonoen kostua 1.610,70 eurokoa izan da.

Laburbilduz, eta galderari zehazki erantzute aldera, 1.610,70 euroko kopuru hori da kontusail horretatik orain arte bete den zenbatekoa, eta soilik aurreikusten da ekitaldia amaitu bitartean beste bi sakelako telefono erosiko direla, xede berarekin. Telefono horiek 1610,76 euroko kostua izanen dute; horrenbestez, kontusail horretatik 3.221,4 euro beteko dira.

Iruñean, 2011ko irailaren 30ean

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko zein den “Kamira tailer-eskola” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Kamira tailer-eskola” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Kamira tailer-eskola” izeneko kontusailarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (8-11/PES-69). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilarien erantzuna, Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzuko zuzendariak eginiko txostenarekin bat datorrena:

“2011ko apirilaren 8an, Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak, alde batetik, eta Kamira, S. Coop. de Iniciativa Social sozietateko lehendakariak, bestetik, hitzarmen bat sinatu zuten.

Hitzarmenaren laugarren oinarriak hala dio: “Hezkuntza Departamentuak 45.000 euro jarriko ditu Lehen Oinarrian aipatu jarduerak finantzatzeko, ondoko prozedurari jarraikiz:

laguntzaren % 50 –22.500 euro–, hitzarmena sinatzean.

Gainerako % 50a –22.500 euro–, 2011ko azaroaren 1a baino lehen aurkezten badituzte Hezkuntza Departamentuan gutxienez hitzarmen honen eranskinean aipatzen diren datuak jasotzen dituen oroitidazki ekonomikoa eta beharrezkoak diren ziurtagiriak.”

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren martxoaren 23ko 109/2011 Ebazpenaren bidez, dirulaguntza eman zitzaion Kamira elkarteari eta aipatu hitzarmenaren testua onetsi zen.

Hitzarmenean esaten den moduan, apirilean egin zen 22.500 euroko transferentzia, 423003-42230-4819 322002 kontusailaren kargura.

Hitzarmenaren xedapenei jarraikiz, Kamira elkarteak azaroaren 1a baino lehen aurkezten baditu Hezkuntza Departamentuan oroitidazki ekonomikoa eta justifikaziozkoa, beharrezkoak diren datuekin, falta den zenbatekoa ordainduko zaio.”

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Enplegu Zentro Bereziaren proiekturako, hezkuntza bereziarengatik” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, jakiteko zein den “Dirulaguntza Enplegu Zentro Bereziaren proiekturako, hezkuntza bereziarengatik” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Dirulaguntza, Enplegu Zentro Bereziaren proiekturako, hezkuntza bereziarengatik” izeneko kontusailaren betetze-mailari buruz (PES-146/11). Hona Nafarroako Gobernuak Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

2011ko ekainaren 30ean, “Dirulaguntza, Enplegu Zentro Bereziaren proiekturako, hezkuntza bereziarengatik” izeneko 920004 91820 4819 231300 “(**) kontusailaren egoera ondokoa da: kontusaila ez da bete eta betetze maila % 0koa da.

Ez betetzearen arrazoia da gauzatzeko zailtasun teknikoa; izan ere, kontusailaren aurrekontukodea funtzionamendurako dirulaguntzei dagokiena da, baina kontusailaren testutik ondoriozta daiteke dirulaguntza zentro batean eginiko inbertsioari dagokiola.

Gainera, kontusailaren izenak, zeina galdera egilearen parlamentu-taldeak aurkeztutako zuzenketa baten ondorioz onetsi baitzen, oker ulertzeko bidea ematen du, eta, ondorioz, bete ezinezkoa da ikuspegi legezko eta funtzionaltetik; izan ere, badirudi dirulaguntza enplegu zentro berezi batera zuzenduta dagoela, eta, ondorioz, enpleguaren arloko eskumenak dituen departamentuari legokioke, baina egiazki lagundu nahi zena okupazio-zentro bat zen, eta arlo horretako eskumena bai, Gizarte Politikako Departamentuari –lehen Gizarte Gaietako– dagokio.

Lortutako datuen arabera, dirulaguntza horrek, asmoa eta bere garaian aurkeztutako zuzenketa kontuan hartuta, El Molino zentroko instalazioetan egin beharreko inbertsioa finantzatzeko xedea zuen.

Kontusail hori betetzeko ezintasun tekniko eta legezkoa ikusirik, asmoa da 2012ko aurrekontuetan kontusail bat jasotzea, aipatu zuzenketaren xedea betetzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 22an

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko Lorcaiko Udalari emandako diru-laguntza lehentasunezkoa kontsideratzen ote den.

TXEMA MAULEÓN ETXEBERRIA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Etxeberría jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Lorcaiko Udalari emandako diru-laguntza lehentasunezkoa kontsideratzen ote den.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek gaurkotatsun handiko ondoko galdera egin du, Kulturako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Publikoki jakin denez, Foru exekutiboak 636.924 euro eman zizkion –nafar bakoitzeko bat– Lorcaiko herriari, herri horrek pairatu zuen lurrikara larriaren ondotik udaleko ondare historikoa eta artistikoa leheneratzeko; laguntza horri esker, aurtan berriz ere egingen da herriko kaleetan barrena Aste Santuko prozesioa, zeina nazioarteko turismo-intereseko festa deklaratu baitzen.

Lorcaiko herrian joan den martxoan gertatu zen lurrikararen ondorioei buruz eman diren gutxi gorabeherako zenbait datuk diote 25.000 etxebizitzakaltetu zirela, 1.200 etxebizitza eraitsi zirela, 10.000 familiak bilatu behar izan zutela ostata bere ohiko bizilekutik kanpo, bere kasa eta bere lepora. Egun, 1.000 familia inguru dago bere etxetik kanpo, inguruko herrietan ostatu hartuta.

Eroritako eraikinetako bat bera ez da hasi berreraikitzen oraindik, nahiz eta zortzi hilabete igaro ostean udala obra lizentziak ematen hasi den. Merkatariak ere laguntza ugari ari dira eskatzen, horien premia dute-eta, eta orobat nabarmendu beharra dago ezen lurrikararen ondorioz ikaragarri igo direla alokairuen prezioak ere.

Etxebizitza eraitsi eta alokairuko beste bat aurkitu ez duten edo alokairua ordaindu ezin duten familiak senitartekoen eta lagunen etxeetan daude ostatu hartuta, horrek sor ditzakeen eragozpen eta trabekin, egoera hori urteetan luzatuko dela aurreikusten baita.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

Iragan martxoan gertatutako lurrikararen ondorioz Lorcaiko ehunka familiek bere etxebizitza edukitzerik ez dutela ikusita, Nafarroako Gobernuak Lorcaiko herriari emandako laguntza horren xedea lehentasun handienekoa dela uste al duzue?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakiteko Pirinioetako Autobia Kontabilitate Nazionaleko doikuntzetan kontabilizatu den ala ez.

JUAN CARLOS LONGAS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longas García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Pirinioetako Autobia Kontabilitate Nazionaleko doikuntzetan kontabilizatuko den ala ez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, otsailaren 9ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunak ahoz erantzun dezan:

Antza denez, 2011ko kontu-ixteak eta defizitaren kuantifikazioak Estatuaren eta Nafarroako Gobernuaren kalkuluen arteko desadostasunak eragin ditzakete, zerkusua dutenak Pirinioetako Autobia Kontabilitate Nazionaleko doikuntzetan kontabilizatzearekin ala ez kontabilizatzearekin. Nola izan daiteke Ekonomiako kontseilariak obra hori Kontabilitate Nazionaleko doikuntzetan sartzea 2011ko azaroan eta, aldiz, 2012ko urtarrilean ez sartzea?

Iruñean, 2012ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longas García

